

PLAN ZUZENTZAILEA 2024-2027



Uztaila 2024

XEDEA

Zarauzko udaltzaingoaren xedea, Zarautzen bizikidetza eta segurtasuna bermatuko duen polizia izatearena da, biztanleekiko gertutasuna bilatuz, bizi, lan egin eta bisitatzeko moduko herria izan dadin.

IKUSPEGIA

Herritarrek segurtasun edo bizikidetza arazoren bat dutenean erreferentziazkoa, konfiantzazkoa, eta gertukoa izango den zerbitzu azkarra eskainzen duen polizia izan nahi dugu. Prebentzioa eta iraunkortasuna izango dira gure ardatz.

BALIOAK

- **Etengabeko hobekuntza:** gure jarduna eta inguruko joerak aldian-aldian aztertzea beharrezkotzat jotzen dugu, egoera berrietara egokitu eta gure lana modu eraginkorragoan burutzeko.
- **Lankidetzia:** ezinbestekoa ikusten dugu interes taldeekin harreman estua mantendu eta partekatzen ditugun helburuak lortzeko batera lan egitea.
- **Prebentzioa:** beharrei aurre hartu nahi diegu eta horretarako, proaktibotasunez jokatzeko dugu, sentsibilizazioa landuz eta kausetan eragingo duten neurriak martxan jarritz.
- **Konfiantza:** biztanleriak erreferentziazko eta gertuko profesional gisa hauteman gaitzaten nahi dugu, gugana lasai jo ahal izan dezaten.
- **Segurtasuna:** gure presentzia eta jardunarekin Zarautzen bizikidetzia mantendu nahi dugu eta biztanleriari lasaitasuna transmititu.

ERRONKAK ETA HELBURUAK

1. ERAGINKORTASUNA

1.1. Udaltzaingoa osatzen duten pertsonen kudeaketa hobetu udalaren biztanle hazkunderari erantzuteko.

1.2. Udaltzaingoa behar dituen baliabideak izan ditzan bermatu

1.3. Udaltzaingoaren lanaren antolaketa hobetu

1.4. Udaltzaingoaren eta interes taldeen arteko lankidetzaren sustatu

2. GERTUTASUNA

2.1. Udaltzaingoa eskaintzen duen zerbitzua hobetu

2.2. Udaltzaingoaren kanpo komunikazioa hobetu

3. MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Hiri-mugikortasun iraunkorreko plana eta Agenda 2030 planaren barruan landu da erronka hau

ERABAKI ESTRATEGIKOAK

- **Departamentuko estruktura berria:**

- Komisariorde kategoria sortu. Derrigorrezkoa da 25.000 biztanletik gorako edo 40 udaltzainetik gora dituzten herrietan.
- 2 subofizial ezarri
- Arreta postu bat sortu, udaltzain profilik behar ez duena, sede berrian goiz eta arratsalde egoteko.
- Argiketen arduradun bat ezarri
- Argiketako plaza bereziak LPZtik ezabatu. Polibalentzia sustatu eta argiketak udaltzain guztiek egin beharko dituzte.

- **Formazio behar orokorrak (lehentasun berezia)**

- Argiketak
- Kontrol zentroaren kudeaketa

- **Armak**

- Armak zein postu eta zerbitzuetan eraman beharko diren eta zeinetan ez zehaztu.
- Armen erabileraren inguruko protokoloak zehaztu

- **Teknologia**

- Mugikorrak eta tabletak
- Trafiko kamerak
- Kamera pertsonalak (Taserrarekin batera) ezartzeko aukerak aztertu.
- Dronak izan litekeen jokaera aztertu

- **Web orria eta sare sozialak**

- Udaleko web orrian udaltzaingoak duen atala hobetu. Donostiakoa adibidetzat har liteke.
- Sare Sozial propioak sortzeko aukera aztertu.

- **Antolaketari begira hainbat erronka:**

- Barne komunikazioa/koordinazioa hobetzea.
- Lan egiteko moduak aldatzea, sistematizazioa.
- Plan estrategikoaren jarraipena eta adierazleen neurketa eta horien araberako erabakiak

PLAN ZUZENTZAILEA

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK
3. MUGIKORTASUN JASANGARRIA	3.1. Oinezkoen, motordun ibilgailuen eta bestelako ibilgailuen arteko bizikidetzaren hobetu	Hiri-mugikortasun jasangarriko plana diseinatzen laguntzea	Herri barruko bideen erabiltzaileen arteko bizikidetzari eta errespetuari buruzko proiektu zabala.
		Udalerriko trafikoa aztertzea	Hobekuntzak proposatzea, istripuen, erabiltzaileek sortutako pilaketak eta trafiko arauak ez betetzen dituen datuak ebaluatu eta aztertu egin ondoren
		Trafikoko arauen errespetua sustatzea	Trafikoren arloan sentsibilizazio eta kontrol kanpainak sustatzea
	3.2 Bide-segurtasuna	Garraiobide desberdinen arteko bizikidetzaren ahalbidetzea eta arlo horretan hezkuntza sustatzea	Bizikleten arloan sentsibilizazio eta kontrol kanpainak sustatzea
		Bizikletaren kudeaketa hobetzea etengabeko hobekuntza sustatuz	Bizikleta abandonatuen eta erregistratuen proiektuak baloratu

PLAN ZUZENTZAILEA

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK
2. GERTUTASUNA	2.1. Udaltzaingoak eskaintzen duen zerbitzua hobetu eta euskara erabiliz	Zerbitzuak	Zarauzko larrialdi plana garatu. Hainbat lekuren irekiera/itxiera egiteko lanak uzteko aukera aztertu. Bakarrik bizi diren pertsona helduei babes eman. Euskararen erabilera bultzatu.
		Patruilak egiteko modua	Auzoko taldeekin hasiko gara. Auzokoen arteko auzi edo liskarrak konpontzeko bitartekaritza zerbitzua antolatu.
		Maskotekin bizitzea eta arauak errespetatzea	Arlo honetan sentsibilizazio eta kontrol kanpainak sustatzea
	2.2. Udaltzaingoaren kanpo komunikazioa hobetu	Kanpo komunikazioa	Udaltzaingoaren komunikazio plana definitu eta aztertu sare sozial propioa edukitzea.
		Udaleko webgunea	Udaltzaingoak duen atala hobetu

PLAN ZUZENTZAILEA

ERRONKA	HELBURU ESTRATEGIKOA	ADIERAZLEA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK
1. ERAGINKORTASUNA	1.1. Udaltzaingoa osatzen duten pertsonen kudeaketa hobetu udalaren biztanle hazkundeari erantzuteko.	Lan postuen zerrendan dagokion postu modu finkoan betetzen duten pertsonen ehunekoa	Udaltzainen estruktura egokitu Argiketako plaza bereziak LPZtik ezabatu OPEa egitearen azterketa bat aurrera ematea
		Formazio saioen balorazioa (galdetegia)	Formazio plan bat onartu eta martxan jarri
	1.2. Udaltzaingoa behar dituen baliabideak izan ditzan bermatu	Sede berria	Martxan jarri
		DDBB (EuroCop)	EuroCop berriak ematen ditun aukerak aztertu eta ezarri. Mugikor eta tabletan hornidura eta erabilera finkatu
		Kamerak	Trafiko kamerak ezarri, kamera pertsonalak eta dronak erabiltzeko aukera aztertu.
		Ibilgailuak	Moto elektrikoak, bide heziketako furgoneta berria eta argiketako furgoneta.
	1.3. Udaltzaingoaren lanaren antolaketa hobetu	Armaren erabilera	Arma zein postu eta zerbitzuetan eraman behar diren eta zeintzuetan ez aztertu.
		Barne araudia (erregelamendua)	Barne araudia idatzi eta onartu. Modulazioa aztertu
		Bilera sistematika	Bilera dinamika sistematizatu eta ezarri.
		Prozesuen definizioa + Adierazle sistema + datuen azterketa	Dauden prozesuak identifikatu (prozesu mapa egin).
		Lehentasuna duten prozesuak landu.	Gainerako prozesuak ere landu eta prozesu bidezko kudeaketa ezarri
		Protokoloak	Eguneratzen joan. Etengabeko lana da.
	1.4. Udaltzaingoaren eta interes taldeen arteko lankidetzaren sustatu	Ertzaintzarekin hitzarmena	Ertzaintzarekin hitzarmena eguneratu eta bilerak egin.
Suhiltzaileekin, sorospen enpresarekin eta ikastetxeekin harremana.		Suhiltzaileekin saioak antolatu eta ikastetxeen udaltzaingoaren lana ezagutarazteko saioak antolatu.	



ESKERRIK ASKO